**Eibarko Udalaren eta Espainiako Gurutze Gorria – Eibar-Ermua Tokiko Batzordearen arteko lankidetza-hitzarmena.**

**Convenio de colaboración entre el el Ayuntamiento de Eibar y Cruz Roja Española – Comité local Eibar-Ermua.**

Eibar, sinatzen den egunean.

Eibar, a  fecha de firma.

Alde batetik, Jon Iraola Iriondo jauna, Eibarko alkatea (helbidea: Untzaga plaza 1, 20600 Eibar eta IFZ: P2003100A).

De una parte, D. Jon Iraola Iriondo, Alcalde del Ayuntamiento de Eibar, con domicilio en Untzaga plaza, 1, 20600 Eibar y N.I.F. P2003100A.

Eta bestetik, Juan María Urruzuno Echeverría jauna, erakundearen Probintziako Idazkaria, Espainiako Gurutze Gorria – Eibar-Ermua Tokiko Batzordea (helbidea: Artegieta 1, 20600 Eibar, eta IFZ: Q2866001G) elkartearen ordezkaritzan.

Y de otra, D. Juan María Urruzuno Echeverría, Secretario Provincial de la entidad, en nombre y representación de Cruz Roja Española – Comité local Eibar-Ermua, con domicilio en Artegieta 1, 20600 Eibar, y NIF Q2866001G.

## ESKU HARTZEN DUTE

## INTERVIENEN

Lehenengoak, Eibarko Udalaren izenean eta hura ordezkatuz esku hartzen du, bertako alkate-udalburu den aldetik, kontuan hartuta egintza honetarako dituen ahalmenak AJAren 41.25 artikuluan, TAOLen 21.1.r) eta TATBren 24.g) artikuluan xedatutakotik eratortzen direla. Eta 2025eko abenduaren 22ko

El primero lo hace en nombre y representación del Ayuntamiento de Eibar, como alcalde presidente  del mismo, teniendo en cuenta que sus facultades para este acto resultan de lo dispuesto en el artículo 41.25 ROF, 21.1º.r) LBRL y 24.g) TRRL. Y de conformidad al acuerdo de Pleno de 22 de diciembre de 2025.

Udalbatzaren akordioarekin bat etorriz.

Bigarrenak Espainiako Gurutze Gorria – Eibar-Ermua Tokiko Batzordearen izenean esku hartzen du; eta egintza honetan parte hartzeko ahalmena du Probintziako idazkaria den aldetik.

El segundo compareciente lo hace en nombre y representación de Cruz Roja Española – Comité local Eibar-Ermua hallándose facultado para este acto en virtud de Secretario Provincial de la entidad.

Alderdi biek egintza hau egiteko lege-ahalmena aitortzen diote elkarri, eta horretarako

Ambas partes se reconocen capacidad legal necesaria para realizar el presente acto y a tal efecto.

**HAUXE AZALTZEN DUTE**

**EXPONEN**

LEHENA.- Eibarko Udala, 1996ko ekainaren 5eko eskritura publikoaren bidez, Eibarko udalerriko Torrekua kaleko 1. zenbakian dagoen eraikinaren jabea da.

PRIMERO.- El Ayuntamiento de Eibar es propietario, en virtud de escritura pública de fecha 5 de junio de 1996, del edificio ubicado en la calle Torrekua nº 1, dentro del término municipal de Eibar.

Higiezin hori Jabetza Erregistroan inskribatuta dago (857 liburukia, 440 liburua, 103 folioa, 20446 finka, 3. inskripzioa); alta emanda dago ondasunen, eskubideen eta betebeharren udal-inbentarioan 87. zenbakiarekin; eta ondare-ondasun gisa dago kalifikatuta; haren kalifikazioa ekipamendu publikoarena da.

Dicho inmueble se halla inscrito en el Registro de la Propiedad al tomo 857 libro 440 folio 103, finca 20446, inscripción 3ª, dado de alta en el Inventario municipal de bienes, derechos y obligaciones bajo el número 87, está calificado como bien Patrimonial, su calificación es de Equipamiento Público.

EIBAR
Udala | Ayuntamiento

EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar

Eraikin exentua da, oinplano angeluzuzenekoa; 30,00 m x 18,50 m-ko neurriak ditu gutxi gorabehera, eta beheko solairua eta bi solairu altu ditu. Sotoa ere badu, baina udalerriko Udal Lantaldearen biltegietakoa da, eta ezin da bertan sartu eraikinaren barrutik. Sotoaren kota berean dagoen beheko errepidetik sartu behar da.

BIGARRENA.- Espainiako Gurutze Gorria- Eibar-Ermua Tokiko Batzordearen lokala eraikinaren bigarren solairuan dago, erantsitako planoan zehazten den bezala. Eraikina birgaitu eta berritu ondoren, sarbide irisgarri bat izango du fatxada nagusiko arkupe estalitik 2. solairuraino, igogailu baten bidez eta eskaileren bidez.

GURUTZE GORRIAren lokalak 4 fatxada ditu kanpora begira, eta 78,60 m2-ko azalera erabilgarria du. Lagako den espazioa honela dago osatuta: bulegoa, biltegia, atondoa, bi prestakuntza-gela eta eremu komunak (banatzailea eta eskailera).

Se trata de un edificio exento, con planta rectangular con unas dimensiones aproximadas de 30,00m x 18,50m y un perfil edificatorio de planta baja y 2 plantas altas. También dispone de un sótano pero pertenece a los almacenes de la Brigada municipal y es inaccesible desde el interior del edificio, teniendo que acceder a él desde una carretera inferior ubicada a la misma cota del sótano.

SEGUNDO.- El local de Cruz Roja Española – Comité local Eibar-Ermua se ubica en la planta segunda del edificio, tal y como se detalla en el plano adjunto. Tras la ejecución de la rehabilitación y reforma del edificio, dispondrá de un acceso accesible desde el porche cubierto de la fachada principal hasta la planta 2ª mediante un ascensor y mediante escaleras.

El local de CRUZ ROJA cuenta con 4 fachadas hacia el exterior y dispone de una superficie de 78,60 m2 útiles. El espacio a ceder se compone de despacho, almacén, vestíbulo, dos aulas de formación y zonas comunes (distribuidor y escalera).

Gainera, Espainiako Gurutze Gorria – Eibar-Ermua Tokiko Batzordeak beste espazio bat izango du lehen solairuan, Goyeneche Fundazioarentzako gunearen sarreraren aurretik eta partekatutako bilera-gelaren parean.

Además, Cruz Roja Española – Comité local Eibar-Ermua contará con otro espacio en la planta primera, ubicado antes de la entrada al espacio para Fundación Goyeneche y frente a la sala de reuniones compartida.

Sarrerako atondoa Eibarko Udalarekin erabilera-lagapena sinatzen duten hiru erakundeek eta erakunde bakoitzaren erabiltzaileek erabiliko dute.

El hall de entrada será utilizado por las tres entidades con las que el Ayuntamiento de Eibar firme la cesión de uso y las personas usuarias de cada entidad.

Eraikinaren erabilera partekatzen duten hiru erakundeetatik bik, ENE! Eibarko Nagusien Elkarteak eta Espainiako Gurutze Gorria – Eibar-Ermua Tokiko Batzordeak, gainera, eraikinaren lehenengo solairuan dagoen bilera-gune bat erabiltzeko eskubidea izango dute (erantsitako planoan zehazten den espazioa). Entitate bakoitzak espazioa erabiltzeko eskubidea izango du astean bi egunetan. Bi erakundeek erakunde bakoitzaren erabilera-egunak eta esleitu gabeko bosgarren egunaren erabilera ezartzea adostuko dute. Eibarko Udalak ere bilera-gune hori erabili ahal izango du, beharrezkotzat jotzen duenean eta horretarako aukera dagoenean.

Dos de las tres entidades que comparten el uso del edificio, ENE! Eibarko Nagusien Elkartea y Cruz Roja Española – Comité local Eibar-Ermua, además, tendrán derecho a uso de un espacio de reuniones ubicado en la planta primera del edificio. Espacio que se detalla en el plano adjunto. Cada entidad tendrá derecho de uso del espacio dos días por semana. Ambas entidades acordarán establecer los días de uso de cada entidad y el uso del quinto día sin asignar. El Ayuntamiento de Eibar también podrá hacer uso de este espacio de reuniones cuando lo considere necesario y su uso sea posible.

HIRUGARRENA.- Espainiako Gurutze Gorria ibilbide historiko luzeko eta ospe handiko entitatea da. Eibar-Ermua Tokiko Batzordeak egiten dituen ekintzen artean, kolektibo zaurgarriekiko esku-hartze soziala dago, baita familia kalteberetako adingabeen eskola-arrakasta lortzeko programak ere, Gazteen Gurutze Gorriko Gazteria elkarteko boluntarioen bidez.

TERCERO.- Cruz Roja Española es una entidad con largo recorrido histórico y reconocido prestigio. Entre las acciones que realiza el Comité local Eibar-Ermua se encuentra la intervención social con colectivos vulnerables, además de programas encaminados al éxito escolar de menores de familias vulnerables mediante su voluntariado de Cruz Roja Juventud.

LAUGARRENA.- Aurretik azaldutakoa kontuan hartuta, eta jarraian aipatzen diren artikuluen arabera (APOLren 91.4, 93 eta ondorengoak eta 137.4 artikuluak; TEOren 3.1, 4 eta 78 eta ondorengo artikuluak; TAOLren 79.3, 80.1 eta 127.1 e) artikuluak; TATBren 74 eta ondorengo artikuluak; eta,TOLren 3. eta 20.1 artikuluak), eta indarrean dauden gainerako xedapen orokorrei jarraituz,

CUARTO.- En atención a lo expuesto anteriormente y según lo dispuesto en los artículos 91.4, 93 y ss. y 137.4 LPAP, en los artículos 3.1, 4 y 78 y ss. RB, en los artículos 79.3, 80.1 y 127.1.e) LBRL, en los artículos 74 y ss. TRRL, en los artículos 3, 20.1 LHL y el resto de disposiciones de carácter general vigentes de legal aplicación.

**HITZARTZEN DUTE**

**ESTIPULAN**

LEHENA.- Eibarko Udalak aurrez deskribatutako udal higiezinaren gaineko emakidaren esleipena formalizatzen du Espainiako Gurutze Gorria – Eibar-Ermua Tokiko

PRIMERA.- El Ayuntamiento de Eibar formaliza la concesión de uso sobre el local municipal descrito anteriormente a Cruz Roja Española – Comité local Eibar-Ermua, con CIF Q2866001G,

Batzordearekin (IFK: Q2866001G), zeinak hitzarmen honetan xedatutakoa onartu eta jasotzen duen.

quien acepta y recibe de conformidad con lo dispuesto en el presente convenio.

BIGARRENA.- Erabilera-lagapenaren iraupena 10 urtekoa da, behin betiko esleipena formalizatzen denetik kontatzen hasita, eta luzatu egin daiteke bi alderdiek hala erabakiz gero.

SEGUNDA.- El plazo de duración de la cesión de uso es de 10 años contados a partir de la presente formalización de la adjudicación definitiva, pudiendo prorrogarse previo acuerdo entre las partes.

HIRUGARRENA.- Emakida honek ez du kanonik, eta Espainiako Gurutze Gorria – Eibar-Ermua Tokiko Batzordeak hartuko ditu bere gain jardueraren ondoriozko gastuak: argia, ura, gasa, igogailuaren mantentze-lanak eta erakundeari lagatako espazioaren garbiketa. Espainiako Gurutze Gorria – Eibar-Ermua Tokiko Batzordea, gainera, bere jarduera burutzeko behar dituen altzari eta ekipo informatiko guztiez arduratuko da.

TERCERA.- La presente concesión está exenta de canon, debiendo Cruz Roja Española – Comité local Eibar-Ermua hacerse cargo de los gastos propios derivados de su actividad: luz, agua, gas, mantenimiento del ascensor y limpieza del espacio cedido a la entidad. Cruz Roja Española – Comité local Eibar-Ermua además, se hará cargo de todo el mobiliario y equipos informáticos necesarios para la realización de su actividad.

LAUGARRENA.- Emakidadunak hala eskatzen badu, hitzarmen hau eskritura publiko egin daiteke, eta emakidadunak ordaindu beharko ditu hori egiteak dakartzan gastuak.

CUARTA.- El presente convenio podrá elevarse a escritura pública cuando lo interese el concesionario, siendo a su costa los gastos derivados de su otorgamiento.

BOSGARRENA.- Indarrean dagoen legerian ezarritako mugen barruan eta bertan adierazitako betekizunei eta ondorioei lotuta, Administrazioak honako prerrogatiba hauek izango ditu: hitzarmena interpretatzea, hitzarmena betetzeak sortzen dituen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiengatik hitzarmena aldatzea, hitzarmena suntsiaraztea eta hitzarmenaren ondorioak zehaztea.

QUINTA.- Dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos señalados en la legislación vigente, la Administración ostentará las prerrogativas de interpretar el convenio, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta.

Eta ados direla adierazteko, hitzarmen hau sinatzen dute bi alderdiek, ale bikoiztuan baina eragin bakarrerako, idazpuruan aipaturiko tokian eta egunean.

Y, en prueba de conformidad, suscriben las partes el presente convenio, por duplicado ejemplar y a un solo efecto, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

**Espainiako Gurutze Gorrian-Eibar-Ermua Tokiko Batzordea elkartearen izenean**

**Eibarko Udalaren izenean / por el Ayuntamiento de Eibar,**

**Sin./Fdo.: Juan María Urruzuno Echeverría**

**Sin./Fdo.: Jon Iraola Iriondo**